

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Alkiza



Aurkibidea

Udalerria: Alkiza

Sarrera



Gipuzkoako erdialdean eta Tolosaldeako eskualdean kokaturik dagoen landa-udalerria da. Donostiatik 27 kilometrora dago. Alkizatarrei "oiloak" ezizenez deitzen zaie. 11.87 km²-ko azalera du eta iparraldean Larraul eta Asteasu, hegoaldean Hernialde, Tolosa, Albiztur eta Bidania-Goiatz, ekialdean Anoeta eta mendebalean Errezil udalerriak mugakide ditu. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da, Beterrikoa.

- **Biztanleak:** 357
- **Euskaldunak:** %92,8

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **11**
- Pasarteak: **115**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **60**

Proiektuak

- Adineko anoetarren testigantzak
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Mondragon Unibertsitatea

Hizlariak

Joxe Ramon Aranburu Ugartemendia (1941-2018)



Alkizan jaioa, Urruzola baserrian. Bai aita eta bai ama Alkizakoak zituen (aita jaiotetxe berekoa). Aita herriko alkate izana zen gerra aurretik, nazionalisten aldetik. Joxe Ramon jaio baino lehenagoko kontuak izan arren, sarri entzun izan ditu etxean orduko gora-beherei buruzko kontuak, aita eta garaiko herriko erretorea mendian ezkutatuta ibili baitziren. Senideetan gazteena izan arren, gerra ondorena errotan lanean pasatu zuen. Etxe ondoan zuten errota, eta ehotzea debekatuta zegoen garaian ere, gau eta egun izaten zuten martxan. Basoan ere lana izaten zen, alkizarrak ikatza saltzetik bizi baitziren. Udazkenean egurra prestatu eta negua txondor artean pasatzen zuten, gurdia etxola bihurtu, eta txondor bakoitzeko zortzi egun eta zortzi gau zaintza lanetan pasatuz. Han egindako ikatza Tolosara saltzen zuten Urruzolakoek, Gorrotxategi dendako jabeei, hain zuzen. Etxetik kanpora ezkondu bazen ere, anaia zaharrenak jaiotetxea hutsik utzi zuenean bertara itzuli zen. Kamioilari aritu izan da urte askoan, erretiroa hartu arte.

Pello Joxe Aranburu Ugartemendia (1936)



Alkizan jaioa, Urruzola baserrian. Gurasoak Alkizakoak zituen, aita jaiotetxe berekoa. Hamaika urte zituela, aita laneko istripu baten ondorioz hil zen. Pello Joxek bazituen beste hiru anaia eta lau arreba, eta amak seminariorantz bultzatu zuen, herriko apaizaren laguntzaz. Aretxabaletan eta Donostian bi urte igaro zituen seminariorako sarrera prestatzen (gastelania lantzen), eta ondoren Saturrarango seminarioan sartu zen. Han lau urte eder pasatu ondoren, seminario hura itxi egin zuten eta Donostiakora eraman zuten. Handik hogeita lau urterekin atera, eta hogeita bostekin Ezkio-Itsasoko Alegi auzoko apaiz egin zen. Han Herri Gaztedi eta Baserri Gaztediko mugimenduan murgildu zen erabat, eta beste apaiz batzuekin sortutako mugimendu herrikoi, euskalzale eta aurrerakoi bateko partaide izan zen. Mugimendu hartako aldarrikapenek eraman zuten orduan "Don Pedro" zena, LETAG (Lasa eta Garmendia) lantegian lanean hastera. Han hamar urte eman zituen (langileen delegatu gisa arituz), eta handik Beasaina joan zen lanera. Ordurako, ordea, bazezilen Goierriko Euskal Eskolan, gau-eskolan euskara klaseak ematen, eta bertako lankideek eskatuta hasi zen liberatu gisa lanean, materialgintzan eta irakasle gisa. Euskararen irakaskuntzaren esparruan lan mardula egin ondoren erretiratu zen, eta ikerketari emana bizi izan da azken urteetan. Berari zor zaio, besteak beste, Alkiza herriari buruzko lan etnografiko zabala.

Casto Arregi Aranburu (1927)



Alkizako plazako Madrigalberri etxean jaioa. Aita nafarra zuen, Uharte-Arakilgoa, eta ama, berriz, alkizarra. Aitak txikitan ez omen zekien euskaraz besterik, baina oso ume zela Nafarroako Pitillas herrira eraman zuten, eta han erdaraz bizi beharraren beharrez, euskara ahaztu omen zitzaion. Herrian ezagunak ziren bere aitaren euskara xelebrearen inguruko kontuak. Castok, beraz, erdara erraz samar ikasi zuen. Gainera, kale etxean bizi zirenez, lau urte betetzerako eskolara bidali zuten Casto. Eta baserritarrak eskolatik atera eta lanera joaten ziren bitartean, Casto eta gainontzeko Alkizako kalekumeak pilotan ibili ohi ziren. Hala, bi anaia pilotari profesionalak izandakoak ditu. Gaztetan Zubillaga tailerrean ibili zen lanean zazpi urtez. Baina aita perratzailea zuen, eta anaia ere "Albaitari perratzaile" lanetan jarri zutenez soldaduskan, hark ere ondo ikasia zuen ofizioa. Beraz, perratzaile lanetan hasi ziren bi anaiak, eta Anoetan egin zuten etxea. Negozioa Alkizatik Anoetara pasa eta bertan hartu zuen erretiroa.

Bittori Goenaga Uria (1923-2018)



Alkizan jaio zen, Errotazar baserrian. Lau senide ziren, bi mutil eta bi neska. [Maria Teresa Ugartemendi](#)arekin batera egin zitzaion elkarriketa "Adineko anoetarren testigantzak" proiekturako. Maria Teresaren senarrak ere parte hartu zuen tarte batzuetan.

Felipe Legarra Saizar (1917)



Alkizako Bengoetxea baserrian jaioa, baserrian eta baserritik bizi izan da beti Felipe. Hogei urterekin eraman zuten soldadu gaztea, eta penintsulan zehar ibili zen, gerran mandazain. Gerra Zibila bukatutakoan, etxera zihoazelakoan trenean sartu, eta Cadizen zeudela konturatu zenean, berehala ulertu zuen Afrikara zeramatzatela. Eta hala pasa zituen zenbait hilabete Melillan ere. Itzuleran, Anoetara ezkondu zen, eta azken urteetan han bizi izan da.

Antonio Sorarrain Amunarriz (1928-2011)

Frantziskotarra eta idazlea izan zen. *Anaitasuna*, *Euzko Gogoa* eta *Franciscanismo* agerkarietan eman zituen argitara lan aipagarrienak.

Jexus Mari Sorarrain Lasa (1961)



Alkizako Peru baserrian jaioa, 16 senidetan 11.a. Bertan ibili zen eskolan. 15 urterekin Donostiara joan zen sukaldaritza ikastera eta 8 urte egin zituen Aurrera tabernan lanean. 1983an Ameriketara joan zen artzain (azkenetako bat izan zen). Idahon, Kalifornian eta Nevadan egon zen ardi-lanean (kanpero eta artzain), guztira hiru urte eta erdian. Lege-aldaketa bat zela medio, bueltatu egin behar izan zuen eta hemen geratu zen. Diasporako Ahotsak proiekturako elkarrizketatu genuen.

Edurne Ugartemendia Urruzola (1932)



Juliana Urruzola zuen ama, eta Ignacio Mari aita, alkizarrak eta baserritarrak biak. Aitaren jaiotetxean jaio zen, Benzalaga baserrian eta bertan bizi izan zen 17 urte bete arte. 11 senideetan zaharrena izanik gazte-gaztetatik hasi zen lanean. Eskola gustatu ez eta neskame lanetan aritu zen Gasteizen eta Donostiako Lasa ostatuan. Jendaurreko lana nahiago zuela-eta, Eibarko Gure Kaiola jatetxea eta Bartzelonako Clinton hotela ezagutu zituen. 27 urterekin, Alkizara bueltatu eta urte haietan senargai izan zuen Jose Telleria ibartarrarekin ezkondu eta bi alaba izan zituen. Bere hitzetan, jaioterria bihotzean daramala antzematen da Alkizaz mintzo denean. Gazteen eta emakumeen bizimodua nola aldatu den eta beste hainbat kontu kontatu dizkigu.

Maria Teresa Ugartemendia Urruzola (1934)



Alkizako Beltzalaga baserrian jaioa. Ama zuen bertakoa, eta aita, berriz, Alkizako Garaikoetxekoa. Gazte denboran josten ikasi zuen, eta "pantalonera" ere aritu zen, Tolosan. Hogei urte zituela Anoetara ezkondu zen, senarrak eta bere bi anaiek eraikiarazitako hiru bizitzako etxera, eta han bizi izan da azken urte hauetan. "Adineko anoetarren testigantzak" proiektuan Casto senarrarekin eta [Victoria Goenaga](#)rekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Beste probintzietako euskaldunak eta euskara

- **Hizlaria(k)**: Legarra Saizar, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ALK-001/026
- **Iraupena**: 0:03:08. **Hasi**: 01:10:17. **Bukatu**: 01:13:25

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Soldadutzan zegoela, Feliperen baterian leku askotako euskaldunak zeuden. Hala ere, elkar ulertzen zuten. Galiziakoen hizkera ere berezia egiten zitzaien.

Transkripzioa

- Ta zeun arten'e, klaro, danak gipuzkoarrak ez ziñaten izando.
- Keba! Bizkai aldekuak eta naparrak eta...
- Ta zuk aurreneko aldiz bizkaitar bat aitua zendunian, ze pentsatu zendun?
- Gutxi gorabehera pentsatzen gendun e.
- Baiño ez zendun pentsatzen "hauek hitzeiten die zelebren, motel!"?
- Esango dizut /esangoizut/ historiya. Bizkaitarrak zein ta, "Hi —nei, nei esan zian e, bizkaitar batek— Hi! nere arreba! fotua ikusi al diok?". Ta guk seitun pentsatzen gendun txarrena, fotua, baiño harek fotua, fotua normala esan, harek, "fotua ikusi al diok", "fotografiya ikusi al diok" esan nahi zun harek, ta forografiya, guk beste gauza bat pentsatu.
- Ta entenditu, entenditzen ziñaten berez? afuafuafua haste zianian...
- Ba, ba, bai, bai, moldatzen giñan nola-hala, moldatzen giñan.
- Ta zeuen arten ribalidadeik, hola, gipuzkoarrak ta bizkaitarrak eta...?
- Ez.
- Parra iteko're ez? bromatako're ez?
- A, ba, holakoxe tonterin bat esaten bazan. Bizkaitarrak hizketa diferentia due, zelebria due. Josus! "Bentania" ta...
- Ta naparrak? Naparrak'e antzeko xamar?
- Ba...! Ba... halako pixkat nahastutzen du /nastutzeu/, baiño ez, naparra... Bai, bai, diferentia dia, diferentia dia, diferentia dia, bai euskera ta erdera... tira. Galleguak "[in da] carallo" "[in da] carallo". "Carallo" da... esanda're igual izango dio /izangoiyo/, ezta?
- Bai, hala balin bada...
- Gizonezkuak izaten dun /izateun/ hoi. "Cona" emakumiana.
- Koño!
- "[In da carallo cona]!"
- Hala ibiltzen zian?
- E?
- Zuek'e hala ibiliko ziñeten, euskeraz, baiño maldiziyoka zuek'e...
- E, maldiziyua ez da e...
- Ez al da?
- "Carallo" esaten dizut. Entenittuko zenun?
- Bai.
- "Cona" esan dizut. "[In da] carallo, [in da]...", "[in da]" horrek ez dakit ze esan nahi dun. "[In da carallo cona que te fuyu]", hoin hizkera hoi da. "Rapaz, rapaz", emakumiai "rapaz".
- A bai? Gallegok'e...
- "Como si la chica no... rapaz. Ahí está, mira la rapaciña".
- Ondo ematen ziñaten gallegokin?
- Buf!
- Besteik be.
- Bai, bai, haik been aldetik, ta gu zein, etortzen giñanian sartu ta... sekulan, nik pentsatzen det, iñokin ez nun izan ezen zeaien.

1.2. Euskara inguruko herrietan

- **Hizlaria(k)**: Legarra Saizar, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: ALK-001/027
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 01:13:25. **Bukatu**: 01:16:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Tolosaldeako herrietan euskara berdintsua da. Aldaketak Alegiatik aurrera hasten dira. Kostaldean ere pixka bat aldatzen da. Garai batean Donostian euskaraz asko hitz egiten zela dio. Tolosako euskara garbiena da.

Transkripzioa

- Ta oain galdera ya bakarrik hizkeraatik: zu Alkizakua izan ta, geo, gaiñea, Anoeta etorrita bizitzea ta, hizkera diferentziik badao Alkizatik Anoeta?
- Ze, hizketan?
- Bai.
- Hizketan ez.
- Ezta bat ere?
- Ez, uain kastillano, hemen kastillano asko do ta [...]. Baiño ez, ez, euskera... Alkiza ta Anoeta ta Irura ta hoi, hau... Tolosaldea. hau, hau, hemen, hizketa ta...
- Baiño Amezketaa ya kanbiatzen da.
- Bai, bai.
- Nun hasten da? Ze inguru da iguala ta ze inguru berdin...?
- Ba, behin Alegri ezkeo... Ta geo, Eibar aldea ta horrea, berriz, askoz diferentego.
- Ta hemendik Beasaiñea're...
- Zea... E? Bai, bai, bai, beti beste azento bat-eo ematen die /emateiye/. E?
- Ta beste... hemen esan dezu Irura, Anoeta, Alkiza igualtsu; Larraul'e bai.
- Bai, bai, bai.
- Ta Zizurkil ta Astiasu ta Villabona ta?
- Bai, hoik'e bai, hoik'e bai, Villabona ta hoik'e bai. Aia ta. Gero kostaldea berriz'e kanbiatzen da: Orio, Zarautz ta hor pixkat kanbiatzen da.
- Ta beste aldea? Hernani aldea ta?
- Hernani aldia ta hemengo modun. Hernani bertan dao.
- Baiño hizketa ez da kanbiatzen?
- Ez, ez.
- Ta Hernanitik aurea ya Donostitik aurea ta Pasaia ta... hoik?
- Donostin normal. Ta uain esango dizut, garai batian behintzat, gu joten giñanian, euskera, konformidadian e, habitante ta konformidadian, euskeraz gehien hitz eitten zana Donostiya.
- Bai, e?
- Bai. Beste eozein herri txikitan gutxio. Konformidadian, e! Habitantian konformidadian. Donostiya euskalduna da.
- Bai, e? Zentrua're bai?
- E?
- Zentro aldia're bai?
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Ni harrituta eon... geatu izandu naiz Donostin. Ustez jende zea ematen duenak, gure aldian beste postu bateko jendia ta zeak eta, euskeraz been artian, tapa-tapa-tapa. Ta... mekaue la puñeta! Ta Tolosan erdera igual dana.
- Esaten due, ordia, Tolosako euskera dala polittena ba?

- Bai, bai, bai, garbina.
- Hala al da?
- E?
- Hala al da?
- Gutzako bai. Ba bai, Tolosako euskera garbi itten da /ittea/. Bizkaikuan aldian... "leyua"re "bentania" esango dizue /esangoizue/ haik. Ta beste gauza asko holaxe. Uain gogoatzen... ez dia gogoatzen ta. Ahaztutzeko aña denboa're berriz bada ta!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gerra hasiera Alkizan (ALK-001/004)

Hogei urte zituela, gerrara joan zen. Txikia zenean, bi baserri zituzten: bat herrian eta bestea mendian. Gerra hasi zenean, Alkizatik jende askok egin zuen alde. Gerraren berri apaizak eman zuen, irratia zeukalako. Udaletxetik abisua eman zien eta Donostiara joan ziren.

2. Kintak deitu zituzten gerra hasieran (ALK-001/005)

Gerra hasi zenean, beldurra zuten. Gauza asko ahaztu ditu. Kintako zortzi joan ziren Donostiara.

3. Bere garaikoek esklaboen bizimodua bizi izan dute (ALK-001/006)

Felipe Alkizatik gutxi ateratakoa zen. Beraien bizitza esklaboen bizitza izan dela dio. 10. senidea da. Denei obeditu behar izaten zien. Baserrian goserik ez dute pasa izan, baina gabezia bai. Gauzak izugarri aldatu direla pentsatzen du.

4. Zentimoak elizan erresponstuak ateratzeko erabiltzen zituzten (ALK-001/007)

Etxean oilaskoak hazten zituzten ondoren saldu eta dirua lortu ahal izateko. Zentimoak elizan bakarrik erabiltzen zituzten, erresponstuak ateratzeko.

5. Baserrira ura nola eramaten zuten (ALK-001/008)

Felipe mutil koskorra zela etxean ura nola jarri zuten kontatzen du. Ariete bat erabili zuten ura ekartzeko eta maiz apurtzen zitzairen. Beranduago beste etxe batean antzeko sistema erabili zuten.

6. Eskolan oso gutxi ikasi arren soldadutzan besteei kartak idazten zizkien (ALK-001/011)

Eskola Alkizan bertan zegoen. Neskak eta mutilak banaturik ibiltzen ziren. Maisua erdalduna zen. Lau erregelak besterik ez zizkien erakutsi. Maisu hoberenak hiri handietara eramaten omen zituzten. Eskolan garrantzitsuena dotrina ikastea izaten zen. Dotrina erdaraz ikasten zuten. Soldadutzan gehiago ikasi zuen eskolan baino. Soldadu zela besteei kartak idatzi eta irakurtzen zizkien.

7. Baserrian lan handia izaten zuten (ALK-001/012)

Eskola gutxi izan arren, baserriko gauzetan aditua da. Garoaren erabileraz mintzo da. Garo metak nola egiten zituzten kontatzen du. Morroia zuten lan horietan laguntzeko, lan askoko etxea zuten eta.

8. Elizaren agintea; beti esklabo bizitu dira (ALK-001/013)

Eskolan dotrina ikasi zuten. Garizuman apaizak dotrina galdetzen zien txartela lortu ahal izateko. Garai haietan Alkizan bi apaiz zeuden. Mezara eta bezperatara maiz joaten ziren. Behin elizako arkupeetan bilduta zeuden neska-mutilak apaizaren txakurra bazetorrela ikusita, nola sakabanatu ziren gogoan du. Beti esklabo bizitu direla dio.

9. Igande arratsaldeetako plana (ALK-001/014)

Alkizan bazen trikitilaria, Krispin Sorarrain. Jai arratsaldeetan soinua jotzen zuen. Iluntzean Ave Maria jotzen zuenean, neskek etxera joan behar izaten zuten eta mutilek berriz tabernara. Ez zekiten baltseoan egiten dantzan. Tolosara joateko ez zuten ez baimenik ez dirurik. Bizitza gogorra zen hura.

10. Erlijioaren eragina handia izan da: "infernua hemen pasatzen dugu" (ALK-001/015)

Garai haietan gaurko mundua ezagutu balute, gauzak beste modu batekoak izango lirateke. Erlijioari zioten begiruneaz hitz egiten du. Erlijioaren zenbait gauza zalantzan jartzen ditu. Infernua hemen dagoela dio. Lan asko eginda atera dira aurrera. Gaurko gazteei ezer ez zaie falta.

11. Elizako kontuetan gauzak aldatu dira (ALK-001/016)

Oraindik ere erlijioa errespetatzen du. Elizara joaten ez direnak baino hobeagoa denik ez du pentsatzen. Garai batean joaten ez zirenak gaizki ikusiak izaten ziren.

12. Soldadu Katalunian gerra garaian (ALK-001/017)

Hogei urte zituela bidali zuten soldadutzara: aurrena, Logroñora; eta, gerora, Guadalajarara. Kamioi gaineen eraman zituzten. Lastoa gordetzeko erabiltzen zuten borda batean utzi zituzten. Handik Zaragoza ondotik hasi eta Lleida hartu arte gerran ibili ziren. Urtarrilaren 26an, ibaia biluzik nola pasa zuten kontatzen du.

13. Badajozen eta Cadizen gerra ondorenean (ALK-001/019)

Santo Domingo izeneko herri batean soldadu egon zeneko oroitzapenak kontatzen ditu. Dagoeneko, gerra amaiturik zegoen. Oso ezjakinak ziren. Handik Cadizera eraman zituzten.

14. Cadiztik Afrikara gerra ondoren (ALK-001/020)

Hainbat abererekin batera, itsasontzi handi batean sartu zituzten Melillako bidean, soldadutza egiten zegoela. Melillatik Targuiserainoko 200 kilometroak oinez egin zituzten, eta Felipek hiru mandoren ardura zeraman.

15. Afrikan gerra ondoren (ALK-001/021)

Melillan zeudela bi bateriatan antolatuta zeuden, 70 lagun bakoitzean. Haietatik gehienak euskaldunak ziren. Mandoen kateak garbitu behar izaten

zituzten. Hara eraman zituztenean ez zuten inongo azalpenik jaso eta batzuk etxera zihoazela pentsatu ere egin zuten.

16. Melillako oroitzapenak (ALK-001/022)

Melillan zeudela paseatzera atera gabe geratzen ziren behar bezala jantzita ez joateagatik. Arropa etxetik bidalitakoa edo beraiek erositakoa izaten zuten.

17. Soldadu garaiko anekdotak (ALK-001/023)

Soldadu zela, hainbat leku ezagutu zituen. Lleidan ere egon ziren. Bertan ardo deposituak lur azpian nola gordetzen zituzten gogoan du. Zorriak hiltzeko sutara botatzen zituzten. Egoera gogorrek bizitu zituzten.

18. Etxera bi aldiz joan zen soldadu zegoen garaian (ALK-001/024)

Bi urte eta erdi egon zen soldadu eta etxeratzeko bi baimen besterik ez zituen izan. Logroñora itzuli zenean bere bateria Zaragozara joana zela jakin zuen.

19. Soldadutzan erdaraz ikasi behar (ALK-001/025)

Soldadutzan erdaraz ikasi zuen. Erdaldunek euskaldunak gorriak zirela zioten. Euskaldunek beraien artean euskaraz hitz egiten zuten.

20. Baserriaren izenaren jatorria (ALK-004/002)

Gurasoak Alkizakoak zituen biak eta 11 urte zituela hil zitzaion aita. Beraien baserriak Urruzola zuen izena. Baserria Aranburu zelakoan zegoen, baina baserria aztertu zuenean jakin zuen XVIII. mendean etorri zela Aranburu Alkizatik eta hark aldatu zuela baserriaren izena. Beste abizen batzuk ere nahastu dira beraien familian, Roteta, Aiatik etorria, eta Egurola.

21. Alkizako baserriak (ALK-004/003)

Gerra aurrean jaio zen, San Martzial egunean, ekainaren 30ean, eta bezperan San Pedro zelako jarri zioten izen hori. Alkizako baserri autentiko batean jaio zen. Alkizako baserriak XVI. mendetik apenas aldatu omen ziren, errepidea egin zuten arte. Denek etxean lan egiten zuten bere baserrian eta ez ziren kanpora lanera joaten; bera izan zen atera zen bakarra. Bizimodua tradizionala zen, ganadua, artoa, soroa, inorkina bildu (ganaduen azpiak egiteko hostoak, orbela...). Goizetan baserrikoek basoan egiten zuten lan. Bere aita basoan arbola batek harrapatzearen ondorioz hil zen.

22. Basolana Alkiza inguruan (ALK-004/004)

Alkizan inguruetan baino lan gehiago egiten zen basoan. Hernio-Gazume babesteko mugimendua badago gaur egun, Europatik datorren mugimendua. Hernio inguruko basoetan pagoa dago eta artzainak ibiltzen dituzten belatzeak; kobazuloak, lur azpiko urak, leize-zuloak, Alkiza inguruan gauza interesgarri asko daudela uste du, eta horiei esker fabrikarik ez egon arren aurrera egiten dute. Bailara oso aldapatsua delako Aldapa izenez ezagutzen da.

23. Alkizako mugak eta ingurukoekin harremanak (ALK-004/005)

Arana, Apaiztei, Sacamierda, Alkizako auzoen izenak dira. Sacamierda izena berria da, ehun urte besterik ez ditu. Garai batean Aldapa zen auzo

garrantzitsuena, gero Arana eta hirugarrena Azaldegi. Geroago bitan zatitu zen, bata Hernio eta bigarrena Aldapa, eta horretaz aparte herri kaskoa. Beraien baserria Aldapan zegoela dio. Alkizak 10 kilometro ditu, hedadura handia eta Aldapa auzoa luzea da. Iparraldean Alkizak Larraulekin muga egiten du eta hegoaldean dago Aldapa. Arana auzoak, berriz, Tolosaldearako joera du, Anoetatik barrena, eta gaur egungo Anoetako familia askok Alkizan dute jatorria.

24. Alkizako eskola eta maisuak (ALK-004/007)

Ikastera joan behar zuenean ez zekien gaztelania asko, Alkizako eskolan euskaraz aritzen zirelako. Inpresio ona gordetzen du Alkizako eskolaz eta bertako maisuez. Ataun eta Lizarragatik etorriak ziren Alkizan izan zituen bi maisuak. Eskolan erdaraz egiten zuten eta eskolatik kanpo euskaraz, baina halere ez zuen erdara dominatzen. Alkizatik aterata, Aretxabaletako apaiz baten etxean egon zen urtebetez Seminarioan sartu aurretik erdaraz ikasteko.

25. Seminarioa: ikasteko aukera (ALK-004/008)

Gerra ondorengo errazionamenduan etxean errota zutenez ogi zuria zuten; etxeko ganadua hiltzen zuten nahiz eta debekatuta egon. Garai horretan Seminarioa joatea ikasteko modu bat zen, modu merkea. Garai hartan Unibertsitatera joatea ez zen oso normala. Seminarioan burua aldatzen saiatzen ziren, baina lehenengo urteak gustura pasa zituen; lehenengo Aretxabaletan gramatika ikasten eta ondoren kale egin zuen etsaminatzera Donostiara joan zenean. Donostian Miraconchan zegoen eskola batean beste urte bat pasa zuen Seminariorako sarrera prestatzen.

26. Hiru Eliz barrutien sorrera eta Donostiako Seminarioa (ALK-004/010)

Saturraranen sei urte pasa ondoren Gasteizen jarraitu zituen ikasketak. Erromatik eta Madrildik erabaki bat hartu zuten: Gasteizko Seminarioan sortzen ari zen giro nazionalista mozteko, hiru Elizbarrutiak zatitu egin zituzten. Gipuzkoako gotzain jarri zutena katalana eta Franco zalea zen; Donostiako Seminarioa sortu zuten eta Saturraranetik hara eraman zituzten. Donostiako Seminarioan giroa Saturraranen baino askoz okerragoa zen eta hura trauma bat izan zen.

27. Euskal zaletasuna Saturraraneko urteetan (ALK-004/011)

Donostiako Seminariora joan zirenean okerrera giro aldaketa izan zen. Saturraranen izan zuten irakasle ondarroar batez gogoratzen da, harekin klandestinitatean idatzitako euskal nobelak irakurtzen hasi ziren. Nobela klandestinoak irakurritz beraien euskaldun izateaz jabetzen hasi ziren. Donostiara joan zirenean giro on hori moztea trauma izan zen.

28. Hizkuntzak Seminarioan (ALK-004/012)

16 urte zituela joan zen Donostiako Seminarioa eta inozentea zela pentsatzen du. Beraien etxean gerra garaian aita karlista inguruko gizon normala zela pentsatzen du, baina gerran ez zuten parte zuzena hartu. Donostian latina ikasten zuten eta hori gainditu zuten. Euskararen mesprezua sentitu zuten urte haietan, teologia ustez euskaraz erakutsi behar zieten arren, irakasleak broman hartzen zuen, baserritarren kontua bezala. 1960 urterako bazeuden Seminarioan euskara bere kasa ikasten zutenak eta geroa konturatu gara orduan zer gertatzen ari zen. Seminarioan hizkuntza asko lantzen zituzten baina euskara ez, hizkuntza jasoa ez zela esaten zieten.

29. Euskararen aldeko apaizak (ALK-004/013)

Seminariotik atera zenean zailtasunak zituen euskaraz aritzeko eta idazteko. Apaiz egin zenean dokumentuak erdaraz egiten zituzten. Lucas Dorronsoro, Gaztañaga, Aranalde, Atxaga, Fernandez Setien eta beste apaiz batzuek mugimendu berria bultzatu zuten euskal kleroaren alde, firmak jaso eta abar.

30. Euskal apaizen mugimendu berritzaileak (ALK-004/014)

Ezkio-Itsasoko apaiz egin zutenean hasi zen euskaraz alfabetatzen. Altunaren gramatika erabiltzen zuten, Txillardegiren materialak, Joseba Intxaustiren gramatika. Gramatika klasikoak ezin ziren lortu. Orduan ez zegoen euskara baturik eta Gipuzkeran Tolosakoa zen euskalkirik garbiena. Bazeuden politizatuta zeuden apaiz asko, bai alde batekoak eta bai bestekoak. Hizkuntzaren gaia delikatu zen momentu haietan. Nemesio Etxaniz, Serafin Esnaola eta beste batzuk lidertzat zituzten, berrikuntza sortu zutelako 60 hamarkadan.

31. Apaizek euskararen alde egindako lana (ALK-004/015)

Seminarioa itxi zen Bereziartua obispoa etorri zenean. Apaiz gazteek bilerak egiten zituzten eta beraientzat garrantzitsua zen liturgia euskaraz egitea. Bereziartua, Bidaniko semea, euskalduna zen eta neurri batean onartzen zuen euskaraz aritzea. Apaizen bilerak, jardunak eta horrelakoak erdaraz egiten ziren eta hori euskalduntzeko borroka handia izan zuten. Arantzazun egindako lana ikaragarria izan zen abestiak eta euskaratzen.

32. Mugimenduak Elizaren barnean (ALK-004/016)

Apaizen artean etengabe komunikatzen ziren. Ikastolen sorreraren garaia da, ETaren sorrera ere orduan gertatu zen. Alderdiak klandestinoak ziren. 1968ko iraultza gertatu zenerako bera fabrika lanean hasia zen eta bilera asko egiten zituzten eskubideez hitz egiteko eta abar. Elizaren barruan tradizio handiko mugimenduak zeuden urteetan herri txikietako gazteak hezteko mugimendu katolikoa sortu zen, "herri gazteri" deiturikoa. Mugimendu klandestinoak sortu ziren Elizaren lokaletan Elizak kontaktu handiak zituelako gazteekin. Garai hartan apaiza ongi bizi zen.

33. Elizaren berrikuntza (ALK-004/017)

Gerra aurreko apaiza askok ez zuten ongi ikusten apaizak gazteekin nahastea eta horren aurrean gauzak aldatu nahi izan zituzten. Gauzak aldatzeko baldintzak jarri zituzten apaiza gazteek: apaiza ez zela Estatuak emandako dirutik, hortik askatu egin behar zirela lana eginez, dirua irabaziz. Apaiza batzuk funeraria lanean hasi ziren, beste batzuk irakaskuntzan, ikastoletan.

Bera lanean hasi zen garaian lana sobran zegoen inguruan eta kanpotik jende asko etortzen zen lanera eta horregatik apaiza batzuk fabrika lanean erabaki zuten.

34. Apaiza zela fabrika batean lanean (ALK-004/019)

Alegiako LETAG (Lasa eta Garmendia) enpresan hasi zen lanean peoi bezala, motorrak eta inguruko piezak egiten. Lantegiko nagusiari ongi iruditu zitzaion apaizak eskulana zer zen ezagutzea. Sotana jantzita lanera joatea gogorra zen. Lanean hasi aurretik lantegiko askok bazekiten beraien bizitza berriaren zergatia.

35. Langileen borrokan konpromisoa izan zuen (ALK-004/021)

Zortzi urte pasa zituen Alegiako parrokian eta bitartean fabrika lanean, hasieran egun erdia eta gero egun osoa. Konpromiso osoarekin egin zuen lana eta fabrikako ordezkari aukeratu zuten aldarrikapenak egiteko; nagusiekin borrokatu behar izan zuen. Greba asko politikoak izaten zirela dio. Lanean zeuden bitartean Irizarreko langile batzuk beraiek atera nahian etorri zirela gogoan du eta mehatxatu egin omen zuten; beste lantoki bat bilatzeko eskatu zioten nagusiek. Eskulangile ona izan dela pentsatzen du, baserriko semea izanda, horretara ohitua zegoelako.

36. Lazkaoko barnetegian lanean, parrokiatik aldendu ondoren (ALK-004/022)

Fabrika arduradun zegoen gizon bertsolaria gogoan du, Ormaiztegiko semea: Mugika. Fabrika utzi zuenean segituan aurkitu zuen beste lan bat, Beasainen. Etxea erosi zuten Lazkaon eta urte haiek fenomenoak izan ziren. Ofizio batzuk menperatzen zituen, tornua, fresatzeko makina... baina, apaizen kritikak, Seminarioa ixtea, apaizen faltsukeria, elizara joaten zen jendearen portaera, lantokietako jokabideak eta abarrek, parrokiatik aldentzera bultzatu zuten. Eginkizun hobeak zituela pentsatu zuen eta fabrika utzi ondoren lan interesgarriago bat bilatu zuen, euskararen aldeko boomaren garaian, Lazkaoko AEKko barnetegian irakasle gisa. Garai hartan ez zegoen ez metodorik, ez ariketarik...

37. Gerriko elkarte eta Maizpideko lehendakari (ALK-004/024)

Bere bizitzako azken urte haiek interesgarrienak izan direla pentsatzen du. Goierrin euskarazko ikerkuntza-lehiaketa sortu zen eta bertan jarraitzen du, Gerrikoan, beraiek sortutakoan. Maizpideko kide ere bada. Lazkaon etxe berria egin zuten, elkarte eta taberna zituena, liburutegi, bulego eta guztiarekin euskara ikasten ari zirenak bertan gera zitezen. Gerrikoren helburua euskaldun zaharrak eta berriak elkartean biltzea zen. Gerrikoan 180 bazkide izatera iritsi ziren. Bere lana materialak sortzea zen bereziki eta horretarako euskara dominatu, lantaldeak sortu. Maizpiden 1990ean krisia izan ondoren lehendakari izendatu zuten eta etapa gogorra izan zen.

38. Japoniatik etorritako baten galderak eta haien ondorioak (ALK-004/026)

1990ean istripu baten ondorioz bajan egon zen eta etapa horretan japoniarren gaiarekin hasi zen korapilatzen. Japoniar bat agertu zen Alkizan eta bi galdera egin zizkion: bata, ea noizkoa zen Urruzola baserria eta ez zuen erantzuten jakin, eta bigarren galdera, berriz, Alkizaren historia, eta hura ere ezin

erantzun. Bere ezjakintasunak bultzatuta ikerketa-lanetan hasi zen. Informazio ikaragarria aurkitu zuen, bereziki Tolosako artxibategian, Oñatin, Iruñean. Altxorrik handienetarikoak Alcalá de Henaresko Archivo Nacionalean aurkitu ditu.

39. Ezkondu ondoren baserrira bizitzera bueltatu zen (ALK-005/002)

Zortzi senideetan gazteena da. Anai zaharrena etxera ezkondu zen baina gero utzi egin zuen. Joxe Ramonek orduan baserrira itzultzea erabaki zuen. Dena konpondu behar izan zuten, bidea egin, etxea berritu,...

40. Gerra ondoren errotara jende asko etortzen zitzaien (ALK-005/003)

Urruzola baserriak garai batean bi bizitza zituen. Zortzi senideak, gurasoak eta aiton amonak bizi ziren etxean. Joxe Ramonen aita basoan ibiltzen zen eta gerra denboran errota jarri zuten. Errotan lana handia egin zuten estraperloaren garaian. Errezil eta Azpeititik ere etortzen zitzaizkien irina bila. Guardia Zibilak etortzen zirenean amak jana ematen zien eta horrela ez zioten errotari kasurik egiten. Errota gau eta egun, jai eta aste irekita zeukaten.

41. Mutil koskorra zenean Irurara joaten zen gauez irina eramatera (ALK-005/004)

Anaiarekin gauez Irurara joaten ziren irina eramatera. Enkargua egin ondoren etxera itzultzen ziren. Iruran Tapia familiakoei eramaten zien irina. Ez zuten beldurrik pasatzen. Oso maiz egiten zuten bidaia hori. Mutil koskorra zenean, egunez makilak egiten ibiltzen zen, gauean irina eramatera joaten zirenean babesteko.

42. Etxean morroia urte askotan; esnea Asteasura eramaten zuten (ALK-005/005)

Umetan ere etxean lana egin behar izaten zen. Etxean urte askotan morroia izan zuten. Morroi hura beranduago Lasartera joan zen lanera eta lan istripu batean hil zen. Alkizan esnea biltzen zuten eta arrebak Asteasura eramaten zuen, hango esnezaleari entregatzeko eta hark Donostian saltzen zuen.

43. Eskolako oroitzapenak (ALK-005/006)

Urruzolatik Alkizako plazara azkar joaten ziren. Eskola plazan zegoen. Joxe Ramon eskolara beste bi senideekin joaten zen. Maisua Nafarroakoa zen eta maistra Lesakakoa. Mutilak behean egoten ziren eta neskak goian. Eskola sartzerakoan Cara al Sol abestu behar zuten. Maisua oso frankista zen. Oso gogorra zen. Maisuaren seme alabak ere eskolara joaten ziren. Maisua eta bere emaztearen izenak gogoan ditu. Erregelarekin nola jotzen zituen kontatzen du. Orduko umeak oraingoak baino gogorragoak ziren. Eskolako sua egiteko egurra bizkarrean eramaten zuten etxetik

44. Aita gordeta egon zen gerra garaian (ALK-005/008)

Joxe Ramonen aita gerra aurretik alkate izan zen; gerra garaian, ordea, alde egin behar izan zuen, nazionalista zelako. Bi edo hiru aldiz etxera bila etorri zitzaizkion.

45. Gerra garaian aita mendian gordeta ibili zen (ALK-005/010)

Joxe Ramonen aita gerra aurretik alkatea izan zen eta gerra garaian alde egin behar izan zuen, nazionalista zelako. Egunez mendian gordeta egoten zen eta gauez etxera itzultzen zen. Erreketeak bila etortzen ziren. Herriko erretorea ere aitarekin ezkutuan ibili zen.

46. 12 urterekin hasi eskolan (ALK-005/014)

Eskolara gogo txarrez joaten ziren. Joxe Ramonek gehiena gau-eskolan ikasi zuen. 12 urte zituela hasi zen eskolan, eta 14 urterekin utzi zuen. 12 urte arte etxean lanean ibili zen. Egun erditan ez ziren joaten etxean lana zegoelako.

47. Telefono bezala erabiltzen zuten zakurra (ALK-005/016)

Etxean Txiki izeneko zakurra zeukaten eta haren koilarean mezuak idazten zituzten errotakoekin komunikatzeko. Zakur hura norbaitek pozoituta hil zen. Zakurra zen garai hartako telefonoa.

48. Igande arratsaldeetako denbora-pasak (ALK-005/018)

Igande arratsaldeak kablean egurra jaisten pasatzen zituzten. Herniotik Asteasura zihoan kablea ikusi ondoren, antzeko jokoa asmatu zuten. Txabolak egiten ere ibiltzen ziren; idiak askatu eta belarretara eramaten ere bai.

49. Gazteen bizimodua asko aldatu da, okerrera Joxe Ramonen ustez behintzat (ALK-005/019)

Asteasuko festak San Pedrotan izaten ziren eta iluntzerako etxera joan behar izaten zuten. Orain berriz ez dago giro onik, oraingo gaztediak diru gehiegi dauka eta horrek galdu egin du.

50. Janari bereziak herriko festetan (ALK-005/020)

Lehen zoriontsuago zirela iruditzen zaio. Herriko festak etorri zain egoten ziren. Garbantzuak eta oilasko errea izaten zituzten egun hartan. Moskatela ere edaten zuten. Izozi saltzailea nola etortzen zen gogoratzen du.

51. Janaria ez zaie inoiz faltatu (ALK-005/021)

Gaztaina asko izaten zuten eta amak gaztainak eta ikatza saltzera eramaten zituen eta irabazitakoarekin etxerako janaria erosten zuen. Janaririk ez zaie inoiz falta izan.

52. Gizartearen eta elizaren aldaketak (ALK-005/022)

Gaur egungo gazteek pena zergatik ematen dioten azaltzen du. Lehen jendea sanoagoa zen. Lehen elizari garrantzia gehiago ematen zitzaion baina zentzu horretan aldaketa hoberako izan da. Behin Aiako elkarte batean gertatutakoa kontatzen du; apaizak federik ez zuela aitortu zueneko.

53. Txerriaren puska hoberena apaizarentzat (ALK-005/028)

Alkizan hiru apaiz ezagutu zituen batera. Txerria hiltzen zenean, puska hoberenak apaizari ematen zitzaizkion. Halakoetan esaten zirenak kontatzen ditu.

54. Txerria partitzerakoan "odolkiak ordainetan" (ALK-005/029)

"Odolkiak ordainetan" esamoldea etxe guztietan erabiltzen zuten. Txerria hildakoan gehiena partitzeko izaten zen. Txerria non hiltzen zuten gogoratzen du. Lan horretarako harakina etortzen zen. Guardia Zibilek beraien etxea maite zuten bertan janaria ematen zitzaielako.

55. Auzolana derrigorrezkoa zen (ALK-005/033)

Garai batean auzolana derrigorrezkoa izaten zen. Beste lanak bakoitzak etxeakoarekin egiten zituzten.

56. Gaztainak bildu eta saldu egiten zituzten (ALK-005/034)

Diru sarrera bakarrak ikatza eta gaztainak saltzetik lortzen zuten. Gaztainak korkoxa eta guzti biltzen zituzten. Horretarako erabiltzen zituzten tresnak eta prozesua deskribatzen ditu. Gaztaina txarrak, zildokak- zilidak, abereentzat gordetzen zituzten.

57. Gaztaina kiloa bi errealetan saltzen zuten (ALK-005/035)

Gaztaina kiloa bi errealetan saltzen zuten. Diru harekin txitxarroak edo sardina zaharrak erosten zituzten. Gaur pinudiak diren terreno guztiak garai hartan gaztainak ziren.

58. Gaztainak lapurtzen zizkien (ALK-005/037)

Gaztainak lapurtzera ere etortzen zitzaizkien. Orain ere kaleko jendea etortzen da lapurretara. Lurrera eroritakoak bakarrik lapurtzen zituzten.

59. Maizterrek errenta Santo Tomas bezperan ordaintzen zuten (ALK-005/038)

Anaia zaharrena etxera ezkondu zen, eta, maizterra ordaintzera etortzen zenean, afaria eskaintzen zioten. Halako batean, errainak egindakoa kontatzen du. Maizterrak Santo Tomas bezperan etortzen ziren errenta ordaintzera. Mila duro ordaintzen zituzten, baina kapoirik ez.

60. Alkiza inguruan ikazkin asko zeuden; ikatza nola egiten zuten (ALK-005/039)

Alkizan baso asko zegoen, denak partikularrak, eta horregatik zegoen ikazkin tradizio handia. Ikatza nola egiten zuten kontatzen du.

61. Baso guztiek mugarriak izaten zituzten (ALK-005/040)

Baso guztiak mugarriekin banatuta zeuden, oraindik ere halaxe daude. Mugarriak harriak izaten ziren. Mugarri bakoitzak lur azpian teila izaten du. Joxe Ramonek inguruko mugarri guztiak ezagutzen ditu.

62. Egurra zein garaian bota behar den (ALK-005/041)

Basoetako egurra udazkenean botatzen da. Pagoa ilberrian bota behar da. Zergatiak azaltzen ditu. Hosto borobileko zuhaitzak ilberrian bota behar dira eta hosto luzekoak berriz, ilbeheran. Zuhaitzak neguan inaustea ez da komenigarria.

63. Ikatza egiteko egur onak eta txarrak (ALK-005/043)

Udazkenean egurra botatzen zuten eta neguan txondorra egin. Ikatza egiteko pagoa da egurrik hoberena. Sagarra eta akazia ere onak dira. Gaztaina berriz, txarra.

64. Ikatza egiteko txondorra nola prestatu (ALK-005/044)

Txondorra prestatzeko zelaia behar izaten da. Txondorra nola egiten zuten azaltzen du. Gauza ondo doala jakiteko kea zuria izan behar da, zortzi bat egunez. Kea urdina denean berriz, erretzen ari dela esan nahi du.

65. Ikazkinen bizimodua (ALK-005/045)

Txondorra zortzi bat egunez egoten zen lanean. Gau eta egun zaindu behar izaten zen. Ikazkinak tarteka lo egiten zuen hantxe bertan. Txondorra negu guztian martxan egoten zen. Etxekoak joaten ziren ikazkinari jana ematera. Pagadi osoa bota eta idiekin eramaten zutenak ere izaten ziren.

66. Trontza besterik ez zuten egurra mozteko (ALK-005/046)

Orduan egurra trontzarekin mozten zuten, ez zegoen oraingo aurrerapenik. Trontzan neskak ere ibiltzen ziren. Pagoa lodia bazen erditik mozten zen txondorra egiteko.

67. Txondorra egiteko asko jakin behar da (ALK-005/047)

Txondorra ongi ateratzeko jakin egin behar da. Garrantzitsuena kea zuria izatea da, urdina ez. Kea zuria bada, egurra egosi egiten da; urdinak berriz, erre egiten du.

68. Alkizako ikazkinak (ALK-005/048)

Alkizan baziren ikazkin adituak. Haien izenak aipatzen ditu. Batzuk gaztaina egurrarekin egiten zuten hala enkargatzen zietelako. Errementari famatua zen batek egiten zuen enkargu hura.

69. Erabilitako egurraren arabera ikatza mota desberdinak (ALK-005/049)

Erabilitako egurraren arabera ikatza desberdina izaten zen. Joxe Ramonen etxeko ikatza guztia Gorrotxategik eramaten zuen eta pagoarena nahi izaten zuen. Sagarra ere oso ona da ikatzetarako. Ikusi hutsarekin jakin daiteke zein egurrekin egindakoa den ikatza. Tranpak ere egiten omen ziren.

70. Ikatza Tolosako etxeetarako saltzen zuten (ALK-005/050)

Ikatza Tolosan saltzen zuten. Normalean enkargatu egiten zuten. Zakuak estuak izaten ziren. Larunbatetan eramaten zituzten. Alkizako baserritarrek hortik jaten zuten. Lapurreta egindako baten kontakizuna. Etxean ikatza baino gehiago egurra erabiltzen zuten. Ikatza kalean saltzen zen, egurrik ez zutelako. Tolosan saltzen zen ikatza gehiena Alkizakoa zen.

71. Ikatza bezeroei zakutan eramaten zitzairen (ALK-005/052)

Inguruko baserri batzuetan urtean txondorra asko egiten zituzten. Zakua hiru pezetan saltzen zutela gogoratzen du. Zaku estu batzuk izaten ziren, dozena bat kilokoak edo. Bakoitzak bere bezeroak zituen. Azokan ez zuten saltzen, dena enkarguak izaten ziren.

72. Gurdiekin egurra nola eramaten zuten (ALK-005/055)

Gurdiarekin ibiltzen zirenean bi gurpiletakoak izaten ziren. Enborrak nola eramaten zituzten deskribatzen du.

73. Hizkera non aldatzen den (ALK-005/056)

Alkiza inguruko herrietan ez da hizkera aldatzen. Tolosatik gora eta Andoaindik behera berriz bai. Hernani aldera eta Lizartza aldera aldatzen da. Goierriin "a" ordez "e" erabiltzen dute. Gurdiya, mendiya, horrelakoak erabiltzen dira Alkizan. Bizkaia kamioiarekin joandakoan euskaraz ezer ez zuela ulertzen dio.

74. Euren Alkizako baserriak nolakoak ziren (ALK-009/003)

Victoriaren jaiotetxea, Alkizako Errotazarra, baserri zaharra omen zen. Maria Teresaren baserria nolakoa zen. Ze abere zituzten. Hamalau lagun bizi ziren: 11 anai-arreba, gurasoak eta amona. Binaka lo egiten zuten.

75. Taloak eta babarruna egunero; arrautzak Zerkausira (ALK-009/004)

Hamalau lagun bizi ziren Maria Teresaren jaiotetxean, baina ez zuten goserik pasa. Taloak eta babarruna egunero. Igandetan babarrun zuria edo garbantzu. Etxeko oilasko eta untxiak izaten zituzten. Arrautzak Tolosan saltzeko izaten ziren.

76. Kapoiak eta arrautzak errenta ordaintzeko (ALK-009/006)

Victoriaren etxean errenteroak ziren eta kapoiekin eta arrautzekin ordaintzen zuten etxearen errenta.

77. Eskolan hasterako etxean amarekin ikasita (ALK-009/007)

Bazkaria hartuta joaten zen Victoria eskolara, eta gero izebarenean jaten zuten. Zazpi urterekin hasi zen eskolara, baina ordurako amak etxean erakutsi zien zerbait.

78. Eskolara orduko dotrina ikastera (ALK-009/008)

Eskolara orduko dotrina ikasten zuten apaizarekin sakristian. Apaizak atximurka egiten zien zerbait ez zekitenean. Maria Teresak eskolatik gertu zuen baserria eta eguerdian etxera joaten zen bazkaltzera. Etxeko lanak egin eta berriz eskolara.

79. Argizaria, zoruari distira ateratzeko, eta menda- erratzak (ALK-009/010)

Logeletan egur ilun dotorea izaten zen. Festetarako, altzariak eta lurra argizariarekin pasatzen zituzten, distira ateratzeko. Udarari "mentak" bildu, erratza egin eta logeletan jartzen zen, usain ona zabaltzeko.

80. Estraperlo garaian elikagaiak ezkutuan Donostiara (ALK-009/011)

Hogei urtera arte bizi izan zen Maria Teresa baserrian. Ama goizeko sei eta erdietarako zaldiarekin Irurara jaisten zen, tranbia hartzeko. Handik Donostiara; zer saltzen zuen: esnea, patata, arrautzak eta barazki gutxi batzuk. Estraperlo garaian ezkutuan eramaten ziren elikagai batzuk. Harrapatuz gero, kendu egiten zizkieten.

81. Zaldian jeneroa hartuta Irurara; handik trenez Donostiara (ALK-009/013)

Merkatu hobia zegoelako joaten ziren inguruetakoko emakumeak Donostiara (San Martinera edo Bretxara), elikagaiak saltzera. Perretxikoak ere eramaten zituzten, garaia zenean. Maria Teresaren ama goizeko sei eta erdietarako joaten zen zaldiarekin Irurara, trenera, ume txikiak etxean utzita. Victoria euren etxean egon zen bolada batez, laguntzen. Zaldi bat ba omen zuten erraz beldurtzen zena. Zaldiarekin bidean pasatako komeriak. Zaldia non uzten zuten.

82. Tolosara plazara zaldiz; esnea eta egur-ikatza (ALK-009/014)

Amak tratuarekin Donostiara joateari utzi zionean, Maria Teresa hasi zen zaldiarekin Tolosara joaten. Nondik zehar joaten zen. Bidean abarkak kendu eta zapatak janzten zituen. Esne bezeroak; Ibañez izozkigileak ere hartzen zien esnea izozkiak egiteko. Zer saltzen zuten plazan: patatak, lekak, esnea... Egur-ikatza ere saltzen zuten plazan. Zertarako erabiltzen zen.

83. Tolosatik ekartzen zuten tela arropak egiteko; jaunartze handia (ALK-009/015)

Tolosatik ze elikagai ekartzen zituzten etxerako. Tela ere ekartzen zuten eta gero amak etxean josten zuen arropa. Pixka bat hazi zirenean Irurako jostunak josten zizkien arropak. Jaunartze handiko arropak, adibidez. Hamar urterekin egin zuen jaunartze handia Maria Teresak.

84. Burukominez, saltzeko jenero guztia galdu zelako (ALK-009/016)

Victoria Maria Teresaren amari laguntzen ibili zen garai batean. Behin, tratuarekin zihoazela, zaldia beldurtu eta jenero guztia hondatu zitzaion. Buruko minez egon omen zen, nahigabetuta. Orduko bideak, lokatzaz beteak.

85. Alkizan igandero erromeria (ALK-009/018)

Festan sortzen ziren bikoteak. Asteasura, Larraulera, Hernialdera... joaten ziren. Alkizan igandero erromeria izaten zen. Inguruetatik jende asko etortzen zen. Castoren anaiak jotzen zuen soinua, eta baita berak ere. Dantza soltea bakarrik. "Aimaritarako" (abe mariatarako) etxera joan behar. Bezperak entzun eta gero hasten zen festa. Erromeria plazan izaten zen. Krispin soinu-jolea; iluntzean txapela pasa eta bildutako dirua ematen zioten.

86. Dantza lotua eginez gero, kongregaziotik kanpora (ALK-009/020)

Luistarrak eta "Mariaren alabak", kongregazioak. Dantza lotua eginez gero, kongregaziotik bota egiten zituzten. Jaunartze handia egin eta gero sartzen ziren kongregazioan. Hilean behin konfesatzera eta jauna hartzera joan behar. Bi apaiz egoten ziren Alkizan eta bi meza izaten ziren. Askotan ilunetan ibiltzen ziren bideetan.

87. Garizuman festa egiteko apaizari baimena eskatu behar (ALK-009/021)

San Jose eguna batzuetan Garizuma barruan tokatzen zen. Gazteek festa nahi, baina elizak debekatu egiten zuenez, apaizari baimena eskatu behar izaten zioten. Alkizako apaiza: don Ramon Lizarralde. Sermolari ona omen zen, baina zorrotza, agintzailea.

88. Inguruko herrietara festara (ALK-009/023)

Asteasura, Larraulera, Villabonara... joaten ziren festara. Iluntzerako etxera. Asteasuko festak nolakoak izaten ziren.

89. Alkizako festak (ALK-009/024)

Alkizako festetan txistua eta "ttunttuna" egoten ziren. Bestela, ez zen gauza handirik egoten. Elizkizuna. Gozo saltzailea joaten zen Iruratik. Zozketa ere egiten zen.

90. Elizara joateko oinetakoak aldatu (ALK-009/025)

Neguan askotan hankak bustita eskolara. Abarkak erabiltzen zituzten normalean. Elizara joaten zirenean bidean oinetakoak aldatzen zituzten. Ez zuten besterik ezagutzen eta zoriontsu bizi ziren.

91. Maria Teresak ikterizia pasa zuen umetan (ALK-009/026)

Umetan pasa izan zituzten gaixotasunak; anginak, paperak, "gorriya"... Maria Teresak ikterizia izan omen zuen umetan. Amonak arrautza eman omen zion indartzeko eta justu medikuak hura jaten harrapatu. Kalparsoro zen medikua.

92. Ahizpa poliomieltisarekin gaixotu zen (ALK-009/027)

Maria Teresaren ahizpak poliomieltisa harrapatu zuen bederatzi urterekin, 1953ko uholdeak izan eta zortzi egunera. Tolosako Agirre medikua etxera ekartzeko zertzuk egin behar izan zituzten. Bainuak agindu zizkion medikuak eta aitak iturginari eginarazi zion zinkeko bainuontzi bat. Etxebeste praktikantea egunero joaten zitzaion injekzioak jartzera. Hanka hazi arren, mehea geratu zitzaion.

93. 1953ko uholdeen eragina Alkizan eta Tolosan (ALK-009/028)

1953ko uholdeek luiziak eragin zituzten Alkizan. Urriaren 15a zen, Maria Teresaren eguna. Gau txarra pasa omen zuten, etxera ura sartzen hasi zelako. Hurrengo egunean lagun batekin Tolosara joan zen Maria Teresa eta izututa geratu ziren han eragindako kalteekin. Guadalupeko zubia ere eraman egin zuen urak eta denbora dezente behar izan zuten berriz eraikitzeko.

94. 1950ean egin zen euren etxeraino errepeidea (ALK-009/030)

1957an inauguratu zituzten Anoetako frontoia eta errepeidea. Baina Guadalupetik euren etxerainoko bidea 1950ean egin omen zuten. Dionisio parrokoari esker egin omen ziren herrian lan asko. Castoren anaia organista moduan nahi zuen elizarako, eta horregatik egin omen zion mesedea apaizak.

95. Victoria eta senarra Alkizatik Anoetara (ALK-009/031)

Victoriak Alkizan ezagutu zuen senarra. Hasieran ezkondu eta bertan jarri ziren bizitzen. Gerora Anoetara jaitsi ziren bizitzera, Buztinako jauregira. Han izan zituen lehenengo bi umeak. Alaba zaharrena erditzerakoan oso gaizki pasatu omen zuen. Gero etxez aldatu ziren.

96. Amak hasitako lixiba bukatu behar (ALK-009/033)

Lixiba nola egiten zen: lehenengo arropak xaboitu, ontzi handi batean jarri eta sutako hautsa bota gainera. Xaboi-ura berotu eta ur bero hura gainetik bota. Gero hurrengo egunera arte uzten ziren arropak, astintzeko. 12 urte zituela, amak hasitako lixiba bukatu behar izan zuen Mari Terek, ama erditzen hasi zelako. Beheko baserrikoek zerbait gertatu zela jakin zuten, maindireak nola zabaldu zituen ikusita.

97. Mujika praktikantearen laguntza erditzean (ALK-009/034)

Basilio Mujika praktikantea izan zuen laguntzaile Mari Tereren amak bederatzigarren umearen erditzean. Amonak eta izebak ere lagundu zuten. Mari Terek lixiba egiteaz gain, ume txikiak janzten eta aldatzen ere ikasi behar izan zuen.

98. Sardina zaharra erdibana; aitarekin ikazkintzan (ALK-009/036)

Sardina zaharra jaten zuten eta hura erdibana. Gainera eztabaidan ibiltzen omen ziren, denek isats aldea nahi zutelako. Victoriaren ama Tolosara joaten zen plazara eta baita Villabonara ere, ikatza saltzera. Victoria aitari ikazkintzan laguntzen ibilita dago Hernio azpian. Gaua mendian pasa zuten txondorra zaintzen, suari betegarria sartzen.

99. Bakailaoa tomatearekin eta erreka amuarrainak (ALK-009/038)

Etxean ze arrain jaten zuten. Bakailaoa Donostiatik ekartzen zuten eta tomatearekin jartzen omen zuen Mari Tereren amak. Victoriak etxe ondoan erreka zuen Alkizan eta amuarrainak jaten zituzten.

100. Ezkonbidaia Sanferminetan bukatu (ALK-009/041)

Mari Tere eta Castoren ezkonbidaia, 1957an: Donostiatik Bilbora, handik Gasteizera eta, amaitzeko, Sanferminetara Iruñera. Entzierroa ikusi nahi eta adar puntarik ere ez omen zuten ikusi. Orduko bizipenak.

101. Ezkontzako soinekoa Mari Terek berak egina (ALK-009/042)

Mari Tereren ezkontza. Alkizan ezkondu eta Asteasun egin zuten bazkaria. Zer bazkaldu zuten. Ezkontzarako soinekoa berak josi zuen, jostunaren laguntzaz. Beltzez ezkondu zen, garai hartan oraindik ez baitzen ohikoa soineko zuria.

102. Lutoa zenean, ezkontzan soinujolerik ez (ALK-009/045)

Mari Tere ezkondu baino bost hilabete lehenago hil zitzairen amona eta lutoa eramane behar. Halakoetan soinujolerik ez zen eramaten ezkontzara. Euren ezkontzan gazte asko zen eta anaiak Asteasu inguruko soinujoleren bat eramane zuen azkenean. Victoriaren ezkontzan Mari Tereren koinatuak, Patxik, jo zuen soinua.

103. Erregenetan laranajak opari berezi gisa (ALK-009/046)

Erregenetan, opari berezi moduan, laranja handi bana ekartzen ziela amak Donostiatik dio Mari Terek. Bestela, pikuak edo. Ilusioa egiten zien.

104. Tolosan josten ikasten (ALK-009/048)

Mari Tere josten ikasten ibili zen Tolosan urte eta erdiz. Jostunaren etxean egoten zen. Egun guztia pasatzen zuen josten. Lau edo bost neska egoten ziren. Bezeroak bertara joaten ziren. Ordurako senargaiarekin zebilen eta, gainera, Castok ere Tolosan lan egiten zuenez, batzuetan bertan ateratzen ziren.

105. Garai batean neskak jostun edo neskame (ALK-009/049)

Garai bateko emakumeek ze lanbide izaten zuten. Gehienak, batez ere baserrikoak, jostun edo neskame joaten ziren. Mari Tereren ahizpak ere halaxe joan ziren. Victoriak bera non ibili izan zen neskame lanetan azaltzen du. 12 urterekin

106. Izebarekin Donostian neskame (ALK-009/050)

Victoria 12 urterekin Donostiara joan zen neskame, izeba batengana. Izebak janari-denda zuen eta asteartetan Villabonara joaten zen trenez Victoria, azokan elikagaiak erostera. Behin arrautza mordoa apurtu zitzaion eta izebak apurtutako arrautzak saltzera bidali nahi izan zuen. Izeba berezi samarra zen eta ez zen gustura egon harekin.

107. Gerra garaian Donostian neskame (ALK-009/051)

Victoria 1936an egon zen Donostian neskame, izebarenean. Orduko bizipenak. Gogoan du gau batean mahai azpian nola egon ziren ezkutatuta, bonbak botatzen zituztela-eta. Donostian ateratzen zen kalera osaba-izebekin. Itsasoa ederra iruditu zitzaion ikusi zuenean.

108. Garbigailua, asmakizun onenetakoa (ALK-009/053)

Garbigailua asmakizun handienetakoa izan zela diote. Mari Tereren etxean zortzi urte eta erdian bost ume jaio ziren eta laguntza handia zen haien arropak (eta bestelakok) garbitzeko.

109. Lehenengo hozkailu eta garbigailuak (ALK-009/055)

Mari Terek dio udara baten untxia jarri zuela saltsan eta mindu egin zela gauerako. Orduantxe erabaki zuten hozkailua jartzea. Hasierako garbigailuek ez zuten lan guztia egiten, baina hala ere aurrerapen handia ziren.

110. Inguruko baserritarrak Alkizako Errotazarrera; sukalde zaharra (ALK-009/056)

Victoriak gogoan du inguruetako jendea Errotazarrera joaten zela artoa ehotzera. Mari Terek dio eurak etxean egiten zutela ogia, garia errotan ehotz. Errotak bi harri edukitzen zituen, bata gariarentzat eta bestea artoarentzat. Errotazarren antzinako sukaldea zuten: talo-burdina, laratza, eta krispia (eltzea jartzeko).

111. Anoeta nolakoa zen garai batean (ALK-009/058)

Anoeta nolakoa zen garai batean. Ze etxe zeuden. Estankotik plazara bitartean soroak zeuden. Plaza ingurua nolakoa zen. `Etxekalte´ taberna zegoen plazan.

112. Tolosaldeko lantegiak (ALK-009/061)

Anoetan, lehen baserritik bizi zen jendea Guadalupen eta paper-lantegian hasi zen lanean. Tolosaldean torloju-lantegi dezente zeuden. Inguruko beste lantegi batzuk. Inguruetako soroak eraikinez betetzen ikusi zituzten. Castok ferratokian lan egiten zuen. Traktoreak hasi zirenean lana gutxitu zitzaien eta utzi egin behar.

113. Castoren iritzia baserriko bizimoduaz (ALK-009/065)

Castoren iritzia. Garai batean maiorazkoa, gizonezkoa, geratzen zen baserrian eta erraina kanpotik etortzen zen. Orduan, eurak egiten ziren jabe eta feriara joateko ere haiei eskatu behar dirua. Euskal Herriko baserri asko pobre bizi zirela dio. Bera ferratzaile lanetan ibiltzen zen eta baserritar asko ordaintzeko arazoekin ikusi izan ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com